# KEZKAK: cuestionario bilingüe de estresores de los estudiantes de enfermería en las prácticas clínicas

**X. Zupiria Gorostidi / M.J. Uranga Iturriotz / M.J. Alberdi Erize / M. Barandiaran Lasa**
Departamento Enfermería II. Escuela Universitaria de Enfermería de Donostia-San Sebastián. Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco. San Sebastián. España.

*Correspondencia:* Xabier Zupiria Gorostidi. Donostiako Erizaintza Eskola. Dr. Begiristain pasealekua, 105. 20080 Donostia. España.
Correo electrónico: ngpzugox@sc.ehu.es

*Recibido:* 22 de febrero de 2002.
*Aceptado:* 31 de julio de 2002.

**(KEZKAK: erizaintzako ikasleek praktika klinikoetan dituzten estresoreen galdeketa elebiduna)**
**(KEZKAK: a new bilingual questionnaire to measure nursing students' stressors in clinical practice)**

**Resumen**

*Objetivo:* Construir y validar un cuestionario bilingüe (castellano/euskera) para medir los estresores que tienen los estudiantes de enfermería en las prácticas clínicas.

*Metodos:* Se ha partido de las ideas recogidas fundamentalmente en reuniones realizadas con los alumnos. En un primer momento 287 estudiantes de enfermería de la Escuela de Enfermería de San Sebastián respondieron a la versión inicial de 55 ítemes y al cuestionario STAI de ansiedad. Tras la depuración por ítem-análisis, se ha obtenido la versión final de 41 ítemes. Algunos de los sujetos respondieron nuevamente la versión final a los 2 meses (n = 198) y a los 6 meses (n = 211).

*Resultados:* El cuestionario presenta una alta consistencia interna (α de Cronbach, 0,95), una fiabilidad considerable (0,72 a los 2 meses y 0,68 a los 6 meses), y una validez concurrente aceptable (0,39 con ansiedad-rasgo). El análisis factorial arroja nueve factores que tienen una alta consistencia interna y explican el 64,4% de la varianza. Según esos factores, los principales estresores para los estudiantes de enfermería en las prácticas clínicas se derivan de la falta de competencia (11,2%), del contacto con el sufrimiento (9,1%), de la relación con tutores y compañeros (8,9%), de la impotencia e incertidumbre (7,7%), de no controlar la relación con el enfermo (7,6%), de la implicación emocional (5,8%), de la relación con el enfermo (dañarse en la relación [5,2%] y el enfermo busca una relación íntima [4,6%]) y de la sobrecarga (4,3%). Se discuten aspectos metodológicos y prácticos del cuestionario y su utilidad en la planificación pedagógica de futuras enfermeras.

*Conclusión:* El cuestionario KEZKAK es un instrumento útil para medir los estresores de los estudiantes de enfermería en las prácticas clínicas.

**Palabras clave:** Fiabilidad. Validez de constructo. Estresores. Alumnos de enfermería. Escala. Práctica clínica.

**Laburpena**

*Helburua:* Erizaintzako ikasleek praktika klinikoetan dituzten estresore edo faktore estresagarriak neurtzeko galdeketa elebiduna (gaztelania-euskera) eraiki eta balioztatzea.

*Metodoak:* Ikasleekin eginiko bileretan bildu ditugun ideietatik abiatu gara. Lehen momentuan, Donostiako Erizaintza Eskolako 287 ikaslek, 55 itemetako lehenengo bertsioa bete zuten, eta, baita ere, larritasuna neurtzeko STAI galdeketa. Item-analisiz eginiko garbiketaren ondoren, 41 itemetako azken bertsioa lortu dugu. Ikasle batzuek berriz bete zuten azken bertsioa, 2 hilabete (n = 198) eta 6 hilabete (n = 211) geroago.

*Emaitzak:* Galdeketak barne trinkotasun garrantzitsua du (Cronbach-en α 0,95), fidagarritasun nabarmena (0,72 bi hilabetera eta 0,68 sei hilabetera), eta onartzeko moduko konkurrentzi baliagarritasuna (0,39 larritasunerako joerarekin). Analisi faktorialak 9 faktoretan biltzen ditu itemak. Faktoreek barne egonkortasun handia dute eta aldagarritasunaren % 64,4 azaltzen dute. Faktore horietan oinarrituta, esan genezake ikasleei praktika klinikoetan gehien estresatzen diena ondorengo hauek direla: gaitasun eza (% 11,2), oinazearekin kontaktua (% 9,1), tutore eta lankideekiko harremana (% 8,9), ezina eta ziurgabetasuna (% 7,7), gaixoarekiko harremana ez kontrolatzea (% 7,6), inplikazio emozionala (% 5,8), gaixoarekiko harremanean mina hartzea (% 5,2), gaixoak harreman estua bilatzea (% 4,6) eta gainzama (% 4,3). Galdeketaren alde metodologiko eta praktikoak eztabaidatzen dira, eta baita ere, etorkizuneko erizainen prestakuntzaren planifikazioan izan dezakeen erabilgarritasuna.

*Ondoriorak:* KEZKAK galdeketa erabilgarria da erizaintzako ikasleek praktika klinikoetan dituzten estresoreak neurtzeko.

**Hitz-gakoak:** Fidagarritasuna, konstruktu baliagarritasuna, estresoreak, erizaintzako ikasleak, eskala, praktika klinikoak.

**Abstract**

*Objective:* To develop a bilingual questionnaire (Basque-Spanish) to measure nursing students' stressors in clinical practice.

*Methods:* Ideas were gathered from nursing students in group discussions. Initially, 287 nursing students from the School of Nursing in San Sebastián (Spain) completed the State-Trait Anxiety Inventory (STAI) and the 55-item version of our questionnaire. After analyzing the items, we selected 41 items for the final version. Some of the subjects completed this final version two (198 = 198) and six months (n = 211) later.

*Results:* The questionnaire presented high internal consistency (Cronbach's α: 0.95), considerable reliability (Spearman's correlation: 0.72 at two months and 0.68 at six months), and acceptable concurrent validity (Spearman's correlation with anxiety: 0.39). Factor analysis produced nine factors, with high internal consistency, which explained 64.4% of the variance. Based on these factors, the main stressors for nursing students in the workplace were produced by lack of competence (11.2%), contact with suffering (9.1%), relationships with tutors, workmates and classmates (8.9%), uncertainty and impotence (7.7%), lack of control in relationships with patients (7.6%), emotional involvement (5.8%), relationships with patients [being harmed by the relationship (5.2%) and patients seeking a close relationship (4.6%)], and overwork (4.3%). Methodological and practice aspects of the questionnaire are discussed, as well as its utility in planning the training of future nurses.

*Conclusion:* The KEZKAK questionnaire is a useful instrument for measuring nursing students' stressors in clinical practice.

**Key words:** Reliability. Construct validity. Stressors. Nursing students. Scale. Clinical practice.

## Introducción

Las teorías sociocognitivas del estrés sostienen que la respuesta a estímulos estresantes depende de la evaluación cognitiva realizada por el sujeto[1]. Dos personas en la misma situación no responden de la misma manera a un mismo estímulo estresante, y éste puede desencadenar mayor estrés en una que en la otra. No obstante, hay que reconocer que existen estresores universales, lo que nos lleva directamente al concepto de «sucesos vitales»[2-4]. Sin pretender volver a conceptualizaciones del estrés anteriores, parece importante desde la educación para la salud, detectar y conocer los sucesos de mayor poder estresor.

Para los estudiantes de enfermería, hay muchos estresores. Zryewskyj y Davis[5] describieron las principales fuentes de estrés de los estudiantes de enfermería. Comprobaron que las áreas académica y clínica generaban el 78,4% de los acontecimientos estresantes, el área social el 8%, y el área personal el 13,6%. Otros trabajos han estudiado las fuentes de estrés del estudiante de enfermería destacando también las áreas académica y clínica[6,7]. Mahat[8] realizó un estudio para detectar los principales estresores únicamente en el ámbito de las prácticas clínicas, observando que el 50% tenía que ver con el área interpersonal.

Centrándonos en los estresores del trabajo clínico, parece interesante distinguir entre lo que es estresante para la mayoría de lo que no lo es, sobre todo si tenemos en cuenta que algunos de esos estresores, como el contacto con el sufrimiento, siguen siendo universales en enfermeras con experiencia[9,10].

Se ha comprobado que uno de los factores terapéuticos más importantes en la terapia de grupo es el fenómeno de la universalización[11,12]. El sentimiento de que lo que a uno le sucede es singular, y su consiguiente ocultación y aislamiento se ven liberadas cuando se comprueba que a los demás les suceden cosas pare-

## Sarrera

Estresaren teoria soziokognitiboen arabera, estresoreei emandako erantzuna gizabanakoak eginiko ebaluaketa kognitiboaren araberakoa da[1]. Egoera berdinean dauden bi pertsona ezberdinek ez dute berdin erantzuten estimulu estresagarri baten aurrean. Hau da, estimulu horrek pertsona batengan bestearengan baino estres gehiago sortu dezake. Halere, estresore unibertsalak badirela onartu beharrean gaude, eta horrek «bizitzako gertakizunen» kontzeptura garamatza[2-4]. Estresaren kontzeptualizazio zaharretara itzuli gabe, interesgarria deritzogu Osasunerako Hezkuntzaren ikuspuntutik, gehien estresatzen duten gertakizunak atzematea eta ezagutzea.

Erizaintzako ikasleek estresore asko dituzte. Zryewskyj-ek eta Davis-ek[5] erizaintzako ikasleen estres iturri garrantzitsuenak azaldu zituzten. Gune akademikoek eta klinikoek gertakizun estresagarrien % 78,4 sortzen zituztela egiaztatu zuten, gune sozialak % 8, eta gune pertsonalak, berriz, % 13,6. Beste lan batzuk ere erizaintzako ikasleen estres iturriak aztertu dituzte, eta gune akademikoa eta klinikoa azpimarratu dituzte[6,7]. Mahat-ek[8], praktika klinikoetan murgilduz, bertan sortzen dituen estresore nagusiak zehazteko ikerketa bat egin zuen, eta zera ikusi zuen: estresoreen % 50ek pertsonen arteko harremanekin zerikusia zutela.

Lan klinikoaren estresoreetan arreta jarriz, garrantzitsua dirudi gehienentzat estresagarria dena eta ez dena ezberdintzea. Bereziki, kontutan hartzen badugu urte asko lanean daramaten erizainentzat estresore horietako batzuk estresagarri izaten jarraitzen dutela (adibidez oinazearekin kontaktua)[9,10].

Talde terapiaren faktore terapeutiko garrantzitsuenetako bat unibertsalizazioaren fenomenoa dela ikusi da[11,12]. Norberari gertatzen zaiona berezia dela sentitzen bada, norberak gorde egiten du eta isolatu egiten da. Aldiz, pertsonak ikusten duenean besteei antzeko

cidas, produciendo en la persona un gran alivio. En reuniones realizadas con alumnos de enfermería se ha podido comprobar que hablar de lo que les preocupa de la práctica clínica les alivia[13,14]. Detectar y comunicar a los alumnos aquellos estresores comunes que desaparecen o se mantienen permitirá relativizar parte del malestar al que están sometidos en sus primeras experiencias clínicas.

Para conocer hasta qué punto algunas situaciones de la práctica clínica son estresantes para los alumnos de enfermería y su mantenimiento o variación a lo largo del tiempo, resulta imprescindible disponer de un instrumento que lo mida.

Hay instrumentos que miden el estrés en enfermeras hospitalarias[9,15,16], en enfermeras comunitarias[17] y en enfermeras de servicios especiales[18-20]. Cabe destacar de todos ellos *The Nursing Stress Scale*[9], traducido al castellano, adaptado y validado recientemente[10,21]. Se trata de un cuestionario que mide el grado de estrés percibido por enfermeras hospitalarias en su lugar de trabajo, basándose en la frecuencia percibida de determinados estresores reconocidos como universales en esa población.

Si bien hay diversos trabajos sobre fuentes de estrés en los estudiantes de enfermería[6,8,22-24], algunos específicos de las prácticas clínicas[8,22], no hemos encontrado ningún instrumento validado que mida el poder estresor de diferentes situaciones en esa población. Por ello, nos propusimos desarrollar un instrumento que recogiese las principales situaciones estresantes de los estudiantes de enfermería en sus prácticas clínicas.

El estrés es una respuesta compleja (cognitivo, fisiológico y conductual). Se ha comprobado que la respuesta cognitiva es la predominante en estudiantes de enfermería[25]. Decidimos hacer una aproximación cognitiva al estrés, preguntando directamente a los alumnos por lo que más les preocupa de las prácticas clínicas.

Puesto que un 54,8% de nuestra población a estudio es bilingüe compuesta, es decir, partes de su experiencia vital están registradas en castellano y otras partes en euskera[26], consideramos importante hacer una aproximación por medio de un cuestionario bilingüe.

gauzak gertatzen eta bururatzen zaizkiela, asko lasaitzen da. Erizaintzako ikasleekin egindako bileretan ikusi dugu praktika klinikoetatik kezkagarri zaienari buruz hitz egiteak, ikasleak lasaitu egiten dituela[13,14]. Ikasleari adierazten eta zehazten bazaizkio denborarekin mantentzen diren edo desagertzen diren estresagarri arruntak, ikasleak errazago erlatibizatuko du, neurri batean, praktiketan sentitzen duen ezinegona.

Praktika klinikoetan zehar egoera batzuk erizaintzako ikasleentzat zein estresagarri diren jakiteko, eta denboran zehar mantentzen diren edo aldatzen diren jakin ahal izateko, estresagarri horiek neurtuko dituen tresnaren beharra argi geratzen da.

Tresna batzuk ospitaleko erizainen estresa neurtzen dute[9,15,16], beste batzuk komunitateko erizainena[17], eta beste batzuk zerbitzu berezietako erizainena[18,19,20]. Guztien artean, aipatzekoa dugu «The Nursing Stress Scale»[9], orain dela gutxi gaztelaniara itzulia, moldatua eta balioztatua[10,21]. Ospitaleko erizainek bere lanean hautemandako estres maila neurtzen duen tresna da, eta biztanleria horretan unibertsalak bezala hartzen diren estresoreen maiztasunaren pertzepzioan oinarritzen da.

Nahiz eta erizaintzako ikasleen estres iturriei buruz hainbat lan egon[6,8,22-24], eta horietako batzuk praktika klinikoetara mugatzen diren[8,22], ez dugu aurkitu balioztatutako tresnarik biztanleria horren egoera ezberdinen indar estresagarria neurtzen duenik. Hori dela eta, erizaintzako ikasleak praktika klinikoetan dituzten estresagarri garrantzitsuenak jasoko dituen tresna bat eraikitzea erabaki genuen.

Estresa erantzun konplexua da (kognitiboa, fisiologikoa eta jokabidezkoa). Erizaintzako ikasleen artean erantzun kognitiboa nabarmenena dela ikusi da[25]. Estresari hurbilketa kognitiboa egitea erabaki genuen, eta ikasleei zuzenean galdetu genien praktika klinikoetan gehien kezkatzen zituenari buruz.

Gure ikerketaren biztanleriaren % 54,8 elebidun konposatua izanik, hau da, bere bizitzaren zati batzuk gaztelaniaz gordeta dituzte eta beste batzuk euskaraz[26], hurbilketa galdeketa elebidunaren bidez egitea garrantzitsua iruditu zaigu.

## Sujetos y métodos

Las ideas para construir el cuestionario se recogieron fundamentalmente en reuniones previas celebradas con los alumnos de enfermería[13,14]. También se tuvieron en cuenta ideas recogidas en cuestionarios para enfermeras hospitalarias[9,10] y en estudios realizados con estudiantes de enfermería[6,8,22-24].

Se recogieron 62 ideas, y posteriormente se unificaron ideas similares y se eliminaron las ideosincráticas, quedando 55 ítemes (tabla 1).

## Subjektuak eta metodoa

Galdeketa eraikitzeko ideia gehienak erizaintzako ikasleekin eginiko bileretan bilduak izan ziren[13,14]. Ospitaleko erizainentzako egindako galdeketetan[9,10] jasotako ideiak ere kontutan izan ziren, eta, baita ere, erizaintzako ikasleekin egindako ikerketetan[6,8,2-24] aurkitutakoak.

Guztira 62 ideia bildu ziren. Ondoren ideia berdintsuak bateratu ziren eta orokorregiak baztertu. Azkenean, 55 item geratu ziren (1. taula)

**Tabla 1. Correlación ítem-total corregida de los 55 ítemes iniciales. Para esta versión de la escala, en primer lugar se han cogido los ítemes con una correlación ítem-total mayor de 0,5**
***1. taula. Hasierako 55 itemen item-totala korrelazio zuzendua. Eskalaren bertsio honetarako, lehendabizi 0,5 baino balio handiagoa duten itemak hartu dira***

| | | Correlación ítem-total corregida<br>*Item-totala korrelazio zuzendua* |
|---|---|---|
| 1 | No sentirme integrado/a en el equipo de trabajo *(lan-taldean onartua ez sentitzeak)* | 0,62 |
| 7 | No saber cómo responder al paciente *(gaixoari nola erantzun ez jakiteak)* | 0,62 |
| 5 | No saber cómo responder a las expectativas de los pacientes *(gaixoaren eskakizunei nola erantzun ez jakiteak)* | 0,61 |
| 9 | Tener que dar malas noticias *(berri-txarrak eman beharra)* | 0,59 |
| 2 | Hacer mal mi trabajo y perjudicar al paciente *(lana gaizki egin eta gaixoari kalte egiteak)* | 0,59 |
| 3 | Sentir que no puedo ayudar al paciente *(gaixoari ezin diodala lagundu sentitzeak)* | 0,58 |
| 27 | Tener que estar con la familia del paciente cuando éste se está muriendo *(gaixoa hiltzen ari denean familiarekin egon beharra)* | 0,58 |
| 10 | Tener que hablar con el paciente de su sufrimiento *(gaixoarekin bere sufrimenduaz hitz egin beharra)* | 0,58 |
| 8 | Que me afecten las emociones del paciente *(gaixoaren emozioek niri eragitea)* | 0,58 |
| 20 | Encontrarme en alguna situación sin saber qué hacer *(egoera baten aurrean zer egin jakin gabe geratzea)* | 0,57 |
| 4 | Hacer daño psicológico al paciente *(gaixoari min psikologikoa egitea)* | 0,57 |
| 11 | Que el paciente me trate mal *(gaixoak ni gaizki tratatzea)* | 0,57 |
| 18 | Ver morir a un paciente *(gaixoa hiltzen ikustea)* | 0,57 |
| 13 | Contagiarme a través del paciente *(gaixoak niri kutsatzea)* | 0,55 |
| 6 | Hacer daño físico al paciente *(gaixoari min fisikoa egitea)* | 0,55 |
| 30 | Tener que estar con un paciente con el que es difícil comunicarse *(gaixo batekin komunikatzea zaila denean berarekin egon beharra)* | 0,55 |
| 12 | La relación con los profesionales de la salud *(osasun-profesionalekiko harremana)* | 0,54 |
| 14 | Que un paciente que estaba mejorando comience a empeorar *(hobetzen ari zen gaixoa gaizkitzen hastea)* | 0,54 |
| 15 | Pincharme con una aguja infectada *(kutsatutako orratzez zaztatzea)* | 0,54 |
| 17 | «Meter la pata» *(«hanka sartzea»)* | 0,54 |
| 24 | Que el paciente no me respete *(gaixoak niri errespetua galtzea)* | 0,54 |
| 25 | La relación con la venia *(veniarekin harremana)* | 0,53 |
| 21 | Implicarme demasiado con el paciente *(gaixoarekin gehiegi inplikatzea)* | 0,53 |
| 22 | Que mi responsabilidad en el cuidado del paciente sea importante *(gaixoaren zainketan ardura handia izatea)* | 0,53 |
| 26 | Recibir la denuncia de un paciente *(gaixoaren salaketa jasotzea)* | 0,53 |
| 29 | Encontrame ante una situación de urgencia *(egoera larri batean aurkitzea)* | 0,53 |
| 16 | Confundirme de medicación *(botikaz nahastea)* | 0,52 |
| 31 | Tener que estar con un paciente al que se le ha ocultado una mala noticia *(berri-txarra ezkutatu zaion gaixoarekin egon beharra)* | 0,52 |
| 23 | No poder llegar a todos los pacientes *(gaixo guztiengana ez heltzea)* | 0,52 |
| 32 | Tener que realizar procedimientos que duelen al paciente *(gaixoari min egiten dioten prozedurak egin beharra)* | 0,52 |
| 33 | No saber cómo «cortar» al paciente *(gaixoari nola «moztu» ez jakitea)* | 0,52 |
| 19 | La relación con el profesor responsable de prácticas de la escuela *(eskolako praktika arduradun den irakaslearekiko harremana)* | 0,51 |
| 39 | Tener que estar con un paciente terminal *(gaixo terminal batekin egon beharra)* | 0,51 |
| 34 | Tener que trabajar con pacientes agresivos *(gaixo agresiboekin lan egin beharra)* | 0,50 |
| 28 | La relación con los compañeros estudiantes de enfermería *(erizaintzako ikaskideekiko harremana)* | 0,49 |
| 42 | Tener que oler el mal olor de algunos pacientes *(gaixo batzuek darien usain txarra usaindu beharra)* | 0,49 |
| 36 | Recibir órdenes contradictorias *(agindu kontrajarriak jasotzea)* | 0,48 |
| 35 | La sobrecarga de trabajo *(lanez gainezka egotea)* | 0,47 |
| 37 | Que un enfermo del otro sexo se me insinúe *(beste sexuko gaixo batek insinuazioak egitea)* | 0,47 |
| 38 | No encontrar al médico cuando la situación lo requiere *(medikua behar denean ez aurkitzea)* | 0,46 |
| 43 | Tener que estar con un paciente que me disgusta *(gustukoa ez dudan gaixo batekin egon beharra)* | 0,44 |
| 41 | Las diferencias entre lo que aprendemos en clase y lo que vemos en las prácticas *(eskolan ikasitakoaren artean eta praktiketan ikusten denaren artean dauden ezberdintasunak)* | 0,44 |
| 44 | Tener que estar con un paciente demenciado *(burua galdu duen gaixoarekin egon beharra)* | 0,44 |
| 40 | Que el paciente toque ciertas partes de mi cuerpo *(gaixoak nire gorputzeko zenbait atal ukitzea)* | 0,44 |
| 45 | No ser capaz de guardar el secreto profesional *(sekretu profesionala gordetzeko gai ez izatea)* | 0,43 |
| 46 | Tener que ayudar a orinar y defecar a una persona del otro sexo *(beste sexuko bati kaka edo pixa egiten lagundu beharra)* | 0,42 |
| 47 | Tener que ver heridas, deformaciones... de algunos pacientes *(gaixo batzuen zauriak, deformazioak... ikusi beharra)* | 0,38 |
| 48 | Tener que asear a una persona del otro sexo *(beste sexuko bat garbitu beharra)* | 0,38 |
| 49 | Tener que realizar otras funciones que no son propias de enfermería con demasiada frecuencia *(erizain lanak ez direnak maizegi egin beharra)* | 0,35 |
| 50 | Tener que relacionarme con profesionales de la salud y otros miembros de la comunidad en un idioma que no domino *(menderatzen ez dudan hizkuntza batean osasun-profesionalekin eta komunitateko beste kide batzuekin aritu beharra)* | 0,34 |
| 51 | Tener que cuidar a jóvenes enfermos *(gaixo dauden gazteak zaindu beharra)* | 0,34 |

**Tabla 1. Continuación**

| | Correlación ítem-total corregida<br>*Item-totala korrelazio zuzendua* |
|---|---|
| 52 Tener que cuidar a adultos enfermos *(gaixo dauden helduak zaindu beharra)* | 0,34 |
| 53 Tener que cuidar a niños enfermos *(gaixo dauden haurrak zaindu beharra)* | 0,29 |
| 54 Tener que cuidar a ancianos enfermos *(gaixo dauden zaharrak zaindu beharra)* | 0,28 |
| 55 Tener que relacionarme con el paciente y sus familiares en un idioma que no domino *(menderatzen ez dudan hizkuntza batean gaixo eta beraren senideekin aritu beharra)* | 0,27 |

Se pasó el cuestionario de 55 ítems junto con una versión bilingüe del STAI[27] (mide ansiedad-estado y ansiedad-rasgo), a los alumnos matriculados de enfermería en la Escuela Universitaria de Enfermería de San Sebastián (n = 403; 133 de primero, 118 de segundo, y 152 de tercero), en hora de clase, sin previo aviso, permitiendo la libre participación y asegurando el anonimato. Para poder tener medidas repetidas asegurando el anonimato, se pidió a los alumnos que escribieran su tercer y cuarto apellidos en el cuestionario (datos desconocidos para la Escuela).

El cuestionario presentaba 55 situaciones o aspectos de las prácticas clínicas que supuestamente estresan a los alumnos. Las preguntas fueron planteadas de la siguiente manera: ¿hasta qué punto te preocupas de las prácticas clínicas...? El alumno podía elegir entre cuatro posibles respuestas en una escala tipo Likert: nada (0), algo (1), bastante (2) y mucho (3).

Tras informatizar los datos se procedió a la depuración por ítem análisis, utilizando como criterio para la eliminación de ítemes una correlación ítem-total corregida menor de 0,5 en un principio (tabla 1). A partir de ahí se fueron eliminando uno a uno los ítemes con una correlación ítem-total corregida menor (hasta 0,43) y comprobando si procedía recuperar alguno de los ítemes eliminados, resultando finalmente una escala de 41 ítemes (tabla 2).

Como medida de consistencia interna se ha utilizado la $\alpha$ de Crombach. Para probar la validez concurrente se ha utilizado la correlación de Spearman entre las puntuaciones de la escala y las puntuaciones en ansiedad medida por el STAI. Para conocer la estructura factorial del cuestionario se ha realizado un análisis factorial de componentes principales (seleccionando los factores con un Eighenvalue mayor de 1) con rotación Varimax. Se han incluido en cada factor los ítemes con un peso superior a 0,30.

Para probar la fiabilidad de la escala se volvió a pasar el cuestionario de 41 ítemes a los 2 y 6 meses, y se ha realizado la correlación de Spearman.

Donostiako Erizaintzako Eskolan matrikulatutako ikasleei 55 itemetako galdeketa pasa zitzaien, eta, baita ere, larritasunerako joera eta momentuko larritasuna neurtzen dituen STAIaren bertsio elebiduna[27] (n = 403; 133 lehen mailakoak, 118 bigarren mailakoak, eta 152 hirugarren mailakoak). Galdeketa eskolako orduetan pasa zen, ikasleei aurretik abisatu gabe, borondatezko parte-hartzea eskainiz eta anonimatua ziurtatuz. Neurketa errepikatuak egin ahal izateko, ikasleei galdeketan hirugarren eta laugarren abizenak idazteko eskatu zitzaien. Datu horiek eskolan ez daudenez, anonimatua ziurtatua geratzen da.

Galdeketak, ikasleek praktika klinikoetan estresagarritzat hartzen zituzten 55 egoera jasotzen ditu. Galdera honela egiten zen: zenbateraino kezkatzen zaitu praktika klinikoetatik...? Ikasleak lau erantzun zituen aukeran, Likert eskala baten moduan jarriak: ezer ez (0), zerbait (1), dezente (2), eta asko (3).

Euskarazko eta gaztelaniazko bertsioen artean ez zen baliokidetza probarik beharrezkotzat jo. Ideiak bi hizkuntzetan bildu ziren eta beste hizkuntzara aditu talde batek itzuli zituen (erizaintzako eta psikologiako irakasleak, idazlea eta itzultzailea den irakasle batek gainbegiraturik; guztiak bi hizkuntzatan gaitasuna zutenak). Baliokidetza proba egitea kontuan izan bazen ere, azkenean ez zen egin bi arrazoirengatik. Alde batetik, baliokidetza proba batek (galdeketa aurrena hizkuntza batean pasa eta gero bestean), bi hizkuntzetan gaitasuna duten subjektuak behar ditu (elebidun koordinatuak). Gure ikasle elebidun gehienak elebidun konposatuak dira (bizitzaren pasarte batzuk hizkuntza batean gordeta dituzte eta beste batzuk bestean), eta horrek baliokidetza proban eragina izango luke. Bestalde, bi hizkuntzetan gaitasuna dutenen artean ikaste efektua emango litzateke.

Datuak informatizatu ondoren, item analisiaren bidez garbiketa egin zen. Itema baztertzeko irizpidea hasieran hauxe izan zen: item-totala korrelazio zuzendua 0,5 baino txikiagoa izatea (1. taula). Ondoren, item-totala korrelazio txikiena zuten itemak banan-banan baztertzen joan ziren (0,43 arte). Pauso bakoitzean, aurretik baztertutako itemak berriro sartu behar ziren edo ez aztertu zen. Azkenean 41 itemetako galdesorta osatu zen (2. taula).

Barne egonkortasuna neurtzeko Crombach-en al-

**Tabla 2. Correlación ítem-total corregida, así como el valor de la α de Crombach si se elimina el ítem, para la escala de 41 ítemes**

***2. taula. 41 itemetako eskalarentzat, item-totala korrelazio zuzendua eta Cronbach-en alfaren balioa itema eskalatik atera ondoren***

| Ítem<br>*Itema* | Correlación ítem-total corregida<br>*Item-totala korrelazio zuzendua* | α si se elimina el ítem<br>*α itema atera ondoren* | Ítem<br>*Itema* | Correlación ítem-total corregida<br>*Item-totala korrelazio zuzendua* | α si se elimina el ítem<br>*α itema atera ondoren* |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 0,65 | 0,9462 | 22 | 0,55 | 0,9469 |
| 2 | 0,63 | 0,9465 | 23 | 0,55 | 0,9469 |
| 3 | 0,61 | 0,9465 | 24 | 0,55 | 0,9469 |
| 4 | 0,61 | 0,9465 | 25 | 0,54 | 0,9469 |
| 5 | 0,61 | 0,9465 | 26 | 0,54 | 0,9470 |
| 6 | 0,60 | 0,9466 | 27 | 0,53 | 0,9471 |
| 7 | 0,60 | 0,9466 | 28 | 0,52 | 0,9472 |
| 8 | 0,59 | 0,9466 | 29 | 0,52 | 0,9471 |
| 9 | 0,58 | 0,9467 | 30 | 0,52 | 0,9471 |
| 10 | 0,58 | 0,9467 | 31 | 0,51 | 0,9471 |
| 11 | 0,58 | 0,9466 | 32 | 0,51 | 0,9471 |
| 12 | 0,57 | 0,9467 | 33 | 0,50 | 0,9472 |
| 13 | 0,57 | 0,9467 | 34 | 0,49 | 0,9473 |
| 14 | 0,57 | 0,9468 | 35 | 0,48 | 0,9474 |
| 15 | 0,57 | 0,9467 | 36 | 0,48 | 0,9473 |
| 16 | 0,56 | 0,9468 | 37 | 0,48 | 0,9475 |
| 17 | 0,56 | 0,9469 | 38 | 0,47 | 0,9474 |
| 18 | 0,56 | 0,9468 | 39 | 0,46 | 0,9475 |
| 19 | 0,55 | 0,9469 | 40 | 0,44 | 0,9479 |
| 20 | 0,55 | 0,9468 | 41 | 0,43 | 0,9476 |
| 21 | 0,55 | 0,9468 | | | |

## Resultados

En la primera ocasión han respondido 287 alumnos, el 71,2% de la población a estudio (el 83,5% en primero, 78,8% en segundo y 54,6% en tercero). El 91,9% de la muestra eran mujeres, con una media de edad de 21,2 años (4,1) y un rango de 17-44. En la segunda ocasión (a los 2 meses), han contestado 198 y a los 6 meses, 211. En estas dos submuestras sucesivas del grupo original se mantuvieron la proporción de sujetos de cada curso, la proporción de mujeres y la media de edad del grupo originario.

En la tabla 2 puede observarse el valor de la correlación ítem-total corregida para cada ítem de la ver-

faren proba erabili da. Baliagarritasun konkurrentea probatzeko, eskalaren neurketaren eta larritasun neurketen artean, Spearman-en korrelazioaren proba erabili da. Galdesortaren egitura faktoriala ezagutzeko, osagarri nagusien analisi faktoriala egin da (eighenvaluea 1 baino handiagoa duten faktoreak aukeratu dira), varimax biraketarekin. Faktore bakoitzean 0,3 baino pisu handiagoa duten itemak sartu dira.

Eskalaren fidagarritasuna probatzeko, 41 itemetako galdesorta 2 eta 6 hilabete geroago berriz pasa zen (praktikak hastean eta bukatzean), eta Spearman-en korrelazio proba egin da.

## Emaitzak

Lehenengo unean 287 ikaslek erantzun dute, biztanleriaren % 71,2k (lehen mailakoak % 83,5, bigarren mailakoak % 78,8, eta hirugarren mailakoak % 54,6). Hirugarren mailako ikasleen partehartzea eskasagoa izan da, eta horrek azalpen bat du: hirugarren mailako zenbait ikasle normalean ez da eskolara joaten karrera bukatzeko ikasgairen bat besterik ez zaielako falta, eta galdesorta eskolan zeuden ikasleei bakarrik pasa zitzaien. Laginaren % 91,9 emakumeak dira, adinaren batezbestekoa 21,2 urtekoa da (4,1), eta ibiltartea 17 urtetik 44 urtera doa. Bigarren unean, bi hilabetera, 198

sión de 41 ítemes, así como el valor de la α de Cronbach una vez eliminado el ítem.

En la tabla 3 se presenta el análisis factorial realizado, que arroja nueve factores que explican el 64,4% de la varianza: el primer factor explica el 11,2% de ésta y recoge preocupaciones en torno a las ideas de dañar o no poder ayudar al enfermo, o de resultar dañado por falta de competencia, por lo que lo hemos llamado «falta de competencia»; el segundo explica el 9,1% y recoge situaciones de «contacto con el sufrimiento»; el tercero explica el 8,9% y aglutina ítemes que tienen que ver con la «relación con tutores y compañeros»; el cuarto explica el 7,7% y reúne ítemes que tienen que ver con sentir «impotencia e incertidumbre»; el quinto explica el 7,6% y en él tienen gran peso ítemes que hablan de «no controlar la relación con el enfermo»; el sexto explica el 5,8% y contiene ítemes referentes a la «implicación emocional» tanto con el paciente como con el trabajo; el séptimo explica el 5,2% y contiene ítemes que se refieren a «ser dañado en la relación con el enfermo»; el octavo explica el 4,6% y contiene dos ítemes referentes al deseo por parte del paciente de una «relación íntima», y el noveno explica el 4,3% y recoge situaciones de gran demanda para el estudiante, por lo que hemos llamado «sobrecarga».

ikaslek erantzun dute, eta 6 hilabetera, berriz, 211 ikaslek. Hasierako laginaren bi azpi-lagin horietan, maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa mantendu da eta, baita ere, emakumezkoen ehunekoa eta adinaren batezbestekoa.

Bigarren taulan, 41 itemetako bertsioaren item bakoitzaren item-totala korrelazioaren balio zuzendua ikusi daiteke eta baita ere itema kendu eta geroko Cronbachen alfaren balioa.

Hirugarren taulan, eginiko analisi faktoriala agertzen da. Analisiak 9 faktoretan bildu ditu itemak eta 9 faktore horiek aldagarritasunaren % 64,4 azaltzen dute. Lehenengo faktoreak aldagarritasunaren % 11,2 azaltzen du eta zenbait kezka biltzen ditu: gaitasun-ezaren ondorioz gaixoari min egitea, ezin lagundu izatea, edo min hartzea. Faktore horri «gaitasun eza» deitu diogu. Bigarren faktoreak aldagarritasunaren % 9,1 azaltzen du, eta «oinazearekin kontaktua» adierazten duten egoerak biltzen ditu. Hirugarren faktoreak aldagarritasunaren % 8,9 azaltzen du, eta «tutoreekin eta lankideekin harremana» adierazten duten ideiak biltzen ditu. Laugarren faktoreak aldagarritasunaren % 7,7 azaltzen du, eta «ezina eta ziurgabetasuna» adierazten duten itemak biltzen ditu. Bosgarren faktoreak aldagarritasunaren % 7,6 azaltzen du, eta bertan «gaixoarekin harremana ez kontrolatzea» adierazten duten itemak pisu handia dute. Seigarren faktoreak aldagarritasunaren % 5,8 azaltzen

**Tabla 3. Factores resultantes del análisis factorial y porcentaje de la variancia explicada por cada factor. En cada uno se han tenido en cuenta los ítemes con un peso superior a 0,3**
***3. taula. Analisi faktorialaren ondorioz sortutako faktoreak eta azaltzen duten aldagarritasunaren %a. Faktore bakoitzean 0,3 baino pisu handiagoko itemak hartu dira kontutan***

| | |
|---|---|
| 1. Falta de competencia *(gaitasun eza)* (11,2%) | |
| 0,68 (15) | Pincharme con una aguja infectada *(kutsatutako orratzez zaztatzea)* |
| 0,67 (16) | Confundirme de medicación *(botikaz nahastea)* |
| 0,66 (13) | Contagiarme a través del paciente *(gaixoak niri kutsatzea)* |
| 0,65 (4) | Hacer daño psicológico al paciente *(gaixoari min psikologikoa egitea)* |
| 0,65 (2) | Hacer mal mi trabajo y perjudicar al paciente *(lana gaizki egin eta gaixoari kalte egiteak)* |
| 0,63 (6) | Hacer daño físico al paciente *(gaixoari min fisikoa egitea)* |
| 0,57 (26) | Recibir la denuncia de un paciente *(gaixoaren salaketa jasotzea)* |
| 0,52 (1) | No sentirme integrado/a en el equipo de trabajo *(lan-taldean onartua ez sentitzeak)* |
| 0,49 (3) | Sentir que no puedo ayudar al paciente *(gaixoari ezin diodala lagundu sentitzeak)* |
| 0,40 (17) | «Meter la pata» *(«hanka sartzea»)* |
| 0,32 (5) | No saber cómo responder a las expectativas de los pacientes *(gaixoaren eskakizunei nola erantzun ez jakiteak)* |
| 2. Contacto con el sufrimiento *(oinazearekin kontaktua)* (9,1%) | |
| 0,71 (27) | Tener que estar con la familia del paciente cuando éste se está muriendo *(gaixoa hiltzen ari denean familiarekin egon beharra)* |
| 0,63 (39) | Tener que estar con un paciente terminal *(gaixo terminal batekin egon beharra)* |
| 0,61 (18) | Ver morir a un paciente *(gaixoa hiltzen ikustea)* |
| 0,61 (10) | Tener que hablar con el paciente de su sufrimiento *(gaixoarekin bere sufrimenduaz hitz egin beharra)* |
| 0,60 (9) | Tener que dar malas noticias *(berri-txarrak eman beharra)* |
| 0,58 (31) | Tener que estar con un paciente al que se le ha ocultado una mala noticia *(berri-txarra ezkutatu zaion gaixoarekin egon beharra)* |
| 0,53 (32) | Tener que realizar procedimientos que duelen al paciente *(gaixoari min egiten dioten prozedurak egin beharra)* |
| 0,37 (29) | Encontrarme ante una situación de urgencia *(egoera larri batean aurkitzea)* |
| 0,32 (14) | Que un paciente que estaba mejorando comience a empeorar *(hobetzen ari zen gaixoa gaizkitzen hastea)* |
| 0,30 (34) | Tener que trabajar con pacientes agresivos *(gaixo agresiboekin lan egin beharra)* |

**Tabla 3. Continuación**

| | |
|---|---|
| 3. Relación con tutores y compañeros *(tutore eta lankideekiko harremana)* (8,9%) | |
| 0,82 (12) | La relación con los profesionales de la salud *(osasun-profesionalekiko harremana)* |
| 0,81 (28) | La relación con los compañeros estudiantes de enfermería *(erizaintzako ikaskideekiko harremana)* |
| 0,79 (19) | La relación con el profesor responsable de prácticas de la escuela *(eskolako praktika arduradun den irakaslearekiko harremana)* |
| 0,78 (25) | La relación con la venia *(veniarekin harremana)* |
| 0,46 (1) | No sentirme integrado/a en el equipo de trabajo *(lan-taldean onartua ez sentitzeak)* |
| 0,32 (20) | Encontrarme en alguna situación sin saber qué hacer *(egoera baten aurrean zer egin jakin gabe geratzea)* |
| 4. Impotencia e incertidumbre *(ezina eta ziurgabetasuna)* (7,7%) | |
| 0,59 (23) | No poder llegar a todos los pacientes *(gaixo guztiengana ez heltzea)* |
| 0,59 (38) | No encontrar al médico cuando la situación lo requiere *(medikua behar denean ez aurkitzea)* |
| 0,58 (14) | Que un paciente que estaba mejorando comience a empeorar *(hobetzen ari zen gaixoa gaizkitzen hastea)* |
| 0,54 (41) | Las diferencias entre lo que aprendemos en clase y lo que vemos en prácticas *(eskolan ikasitakoaren artean eta praktiketan ikusten denaren artean dauden ezberdintasunak)* |
| 0,46 (36) | Recibir órdenes contradictorias *(agindu kontrajarriak jasotzea)* |
| 0,45 (6) | Hacer daño físico al paciente *(gaixoari min fisikoa egitea)* |
| 0,44 (32) | Tener que realizar procedimientos que duelen al paciente *(gaixoari min egiten dioten prozedurak egin beharra)* |
| 0,41 (3) | Sentir que no puedo ayudar al paciente *(gaixoari ezin diodala lagundu sentitzeak)* |
| 0,35 (17) | «Meter la pata» *(«hanka sartzea»)* |
| 0,32 (2) | Hacer mal mi trabajo y perjudicar al paciente *(lana gaizki egin eta gaixoari kalte egiteak)* |
| 0,30 (20) | Encontrarme en alguna situación sin saber qué hacer *(egoera baten aurrean zer egin jakin gabe geratzea)* |
| 5. No controlar la relación con el enfermo *(gaixoarekiko harremana ez kontrolatzea)* (7,6%) | |
| 0,71 (5 ) | No saber cómo responder a las expectativas de los pacientes *(gaixoaren eskakizunei nola erantzun ez jakiteak)* |
| 0,71 (33) | No saber cómo «cortar» al paciente *(gaixoari nola «moztu» ez jakitea)* |
| 0,70 (7) | No saber cómo responder al paciente *(gaixoari nola erantzun ez jakiteak)* |
| 0,52 (30) | Tener que estar con un paciente con el que es difícil comunicarse *(gaixo batekin komunikatzea zaila denean berarekin egon beharra)* |
| 0,52 (29) | Encontrame ante una situación de urgencia *(egoera larri batean aurkitzea)* |
| 0,39 (39) | Tener que estar con un paciente terminal *(gaixo terminal batekin egon beharra)* |
| 0,36 (17) | «Meter la pata» *(«hanka sartzea»)* |
| 0,31 (20) | Encontrarme en alguna situación sin saber qué hacer *(egoera baten aurrean zer egin jakin gabe geratzea)* |
| 6. Implicación emocional *(inplikazio emozionala)* (5,8%) | |
| 0,82 (21) | Implicarme demasiado con el paciente *(gaixoarekin gehiegi inplikatzea)* |
| 0,75 (8) | Que me afecten las emociones del paciente *(gaixoaren emozioek niri eragitea)* |
| 0,58 (22) | Que mi responsabilidad en el cuidado del paciente sea importante *(gaixoaren zainketan ardura handia izatea)* |
| 0,34 (31) | Tener que estar con un paciente al que se le ha ocultado una mala noticia *(berri-txarra ezkutatu zaion gaixoarekin egon beharra)* |
| 7. Dañarse en la relación con el enfermo *(gaixoarekiko harremanean mina hartzea)* (5,2%) | |
| 0,68 (11) | Que el paciente me trate mal *(gaixoak ni gaizki tratatzea)* |
| 0,64 (24) | Que el paciente no me respete *(gaixoak niri errespetua galtzea)* |
| 0,49 (26) | Recibir la denuncia de un paciente *(gaixoaren salaketa jasotzea)* |
| 0,32 (15) | Pincharme con una aguja infectada *(kutsatutako orratzez zaztatzea)* |
| 0,30 (14) | Que un paciente que estaba mejorando comience a empeorar *(hobetzen ari zen gaixoa gaizkitzen hastea)* |
| 8. El enfermo busca una relación íntima *(gaixoak harreman estua bilatzea)* (4,6%) | |
| 0,80 (40) | Que el paciente toque ciertas partes de mi cuerpo *(gaixoak nire gorputzeko zenbait atal ukitzea)* |
| 0,79 (37) | Que un enfermo del otro sexo se me insinúe *(beste sexuko gaixo batek insinuazioak egitea)* |
| 9. Sobrecarga *(gainzama)* (4,3%) | |
| 0,68 (35) | La sobrecarga de trabajo *(lanez gainezka egotea)* |
| 0,52 (36) | Recibir órdenes contradictorias *(agindu kontrajarriak jasotzea)* |
| 0,52 (34) | Tener que trabajar con pacientes agresivos *(gaixo agresiboekin lan egin beharra)* |
| 0,40 (30) | Tener que estar con un paciente con el que es difícil comunicarse *(gaixo batekin komunikatzea zaila denean berarekin egon beharra)* |
| 0,32 (31) | Tener que estar con un paciente al que se le ha ocultado una mala noticia *(berri-txarra ezkutatu zaion gaixoarekin egon beharra)* |

